

**TECNALIA-ko HIDROGENO LABORATEGI BERRIAREN INAUGURAZIOA**
INAUGURACIÓN NUEVO LABORATORIO DE HIDRÓGENO DE TECNALIA

2024-02-09 Donostia-San Sebastián 09-02-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Gipuzkoako Ahaldu Nagusia, Donostiko alkatea, sailburua, Foru diputatua, sailburuorde, komisaduna, eta gaurkoan zaudeten beste herri agintari eta herri ordezkariok ere bai, Tecnalia-ko arduradunok eta kideok eta enpresetako baita ordezkari guztiok, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko, bihotzez, zuen etxeko atea zabaltzeagatik eta bertan egiten duzuen lana lehen eskutik ezagutzeko aukera emateagatik. Benetan, oso aberasgarria egin zaigu gaurko bisita.

Askotan esan dugu: Herri batek nekez egingo du aurrera bere buruan inbertitzen ez badu. Bada, gaurkoan hori da ikusi duguna: Euskadi lehen mailako laborategi berri honen bitartez bere buruan inbertitzen ari da.

Herri berritzailea gara eta beti sinestu dugu berrikuntzan. Azken bi hamarkadotan, Euskadin berrikuntzaren arloan egin ditugun inbertsioak hirukoiztu egin ditugu. Guztira 1.800 milioi eurora iritsi gara. Gure historiako kopururik handiena da hori.

Inbertsio horri esker, Europako Berrikuntza Panelean gure posizioa indartu egin dugu eta, gaur, 'Berritzaile indartsuen' taldean gaude; Alemania, Austria edo Frantziarekin batera.

Bide berean jarraituko dugu, emaitzek bide egokian goazela erakusten baitute.

EUROSTAT-en arabera, duela hamar urte ezarri genuen helburua gainditu dugu; eta, Berrikuntzan, Europako batz bestekoaren gainetik kokatzea lortu dugu.

Este País entendió, hace mucho tiempo, que nuestro excesivo consumo de combustibles fósiles no auguraba nada bueno.

No tenemos planeta 'B'. Debemos buscar y explorar nuevas vías, ligar nuestra supervivencia a la del planeta.

La nueva Ley de Transición Energética y Cambio Climático va a permitirnos avanzar de forma más decidida en esta vía.

TECNALIA ha sido pionera y ha demostrado una gran visión de futuro.

Hace 20 años puso en marcha su compromiso con el hidrógeno.

En esta misma línea TECNALIA trabaja cada día para que Euskadi sea una referencia en torno al hidrógeno. Una vía clave para acelerar la transición energética hacia una economía baja en carbono.

Hoy hemos podido conocer este nuevo laboratorio. La tecnología para la generación, para la distribución y almacenamiento y los equipos para detectar las fugas de hidrógeno.

Una nueva instalación que marcará la diferencia y añadirá un pilar más en nuestra estrategia por la tecnología, la industria, la transformación energética, la ciencia y la innovación.

Sabemos que la respuesta adecuada al cambio climático llegará gracias a la ciencia y la investigación. Las instituciones públicas, en colaboración con la iniciativa privada, vamos a mantener esta apuesta que nos conduce a un planeta más verde, sostenible y justo.

Tal y como afirma Pedro Miguel Etxenike: “cualquier tiempo pasado fue peor”. La ciencia contribuye de manera decisiva a nuestro bienestar y mejora nuestra calidad de vida.

Eskerrik asko, berriz, zuen lan bikainarengatik. Eskerrik asko Euskadi berde, jasangarriago eta justuago bat eraikitzen laguntzeagatik.

Zorionak TECNALIA eta eskerrik asko egiten duzuen ekarpen guztiagatik!

Egun ona izan!